

MUNDUKIDE
01 KOADERNOA:

NEKAZARITZA JASANGARRIA MOZAMBIKEN



MOZAMBIKEKO LANDA INGURUNEA



Mozambikeko Errepublika Afrikako hego-ekialdeko kostaldean dago; 2014. urtean, Giza Garapenaren indizea 0,416 zuen, eta mundu osoko azken 10 herrialdeetako bat zen. Horretaz gain, herrialdean desoreka nabarmenak zeuden landa inguruneke eta hiriko herritarren bizi baldintzen artean. Landa inguruneke herritarrak herrialdeko 26 milioi biztanleen % 90 ziren, eta **pertsona eta egun bakoitzeko euro 1 baino gutxiago** zuten bizitzeko.

Landa inguruneetan, bizi itxaropena 56,5 urte zen, eta **analfabetismo tasa % 37 gizonen kasuan eta % 62 emakumeen kasuan**.

2005. urteaz geroztik, nazioko gobernuak inbertsio handia egin zuen osasunean eta hezkuntzan; izan ere, langileak kontratatatu zituen, ospitaleak eta ikastetxeak eraiki zituen, eta sare elektrikoa ia herrialde osora zabaltzea ere lortu zuen. Baina,

zerbitzu publikoak hobetu ziren arren,

lagutza oso txikiak bideratu ziren familiareko nekazaritzako produkzioaren sektorera, sektore hori izanik landa inguruneke herritarren bizigai. Probintzietako eta barrutietako gobernuak ere ez zioten lehentasunik ematen nekazaritzari, eta ez zuten dirurik bideratzen sektore horretara. Egia esan, agintarieke administrazio eta kudeaketa publikoarekin lotutako gaitasun eta jakintza oso mugatuak zituzten eta, beraz, haien kudeaketa ez zen eraginkorra.

Komeni da kontuan izatea Mozambiken herritarren % 85ek familiarteko nekazaritzan jarduten dutela eta nekazaritza mota horrek produktibitate txikia duela, **ez baitu ia soberakinik ematen merkatuan saldu ahal izateko**. Baliabide ekonomikorik ez izateak herritarren eguneroko bizitza baldintzatzen du; ezin dituzte oinarritzako elikagaiak erosi, ezin dute ordaindu ospitalera joateko garraioaren kostua, ezin dute konponketarik egin etxean, edo ezin dute telefonoa ordaindu. Baldintza horiek direla eta, landa ingurune eta hirietako herritarren arteko desorekak areagotu egiten dira.



Familia osoak parte hartzen du nekazaritzako lanetan

NIASSA ETA CABO DELGADO PROBINTZIAK

Herrialdearen ipar-mendebaldeko muturrean Niassa eta Cabo Delgado probintziak daude eta, probintzia horietan, **EAEko Mundukide GGKEak** garapenerako lankidetzako proiektuak egiten ditu duela ia 20 urtetik.

Zehazki, 2014. urteaz geroztik Montepuez, Balama, Namuno, Marrupa, Majune eta Mandimba barrutietara bideratu du jarduna. Barrualdeko barrutiak dira, ia 60.000 km²-ko azalera hartzen dute (Euskal Autonomia Erkidegoaren azalera 8 aldiz baino gehiago), populazioaren gehiengoa nekazariak dira eta, gutxi gorabehera, milioi 1 biztanle daude (% 51,4 emakumeak dira). Lurralde zabala izaki, etxebizitzak eta labore lurak oso sakabanatuta daude, baina lurrezko errepideen bitartez konektatuta.

Familiak honela osatzen dira, normalean: aita, ama eta 6 edo 7 seme-alaba, eta etxean ez dute elektrizitaterik, ezta txorrotako urik ere. Etxeak adobez, banbuz eta lastoz egin ohi dituzte.

Osasun arreta oso oinarritzakoa da inguru horretan, ez dago ongi hornitutako osasun etxerik, ezta mediku kualifikaturik ere. Barruti bakoitzean bigarren hezkuntzako ikastetxe bat dagoen arren, irakaskuntza kalitate txarrekoa da eta eskolan absentismo maila handia izaten da, seme-alabak lanerako beharrezkoak izaten direlako soroetan.

Barruti horietan **hainbat etniatako** jendea bizi da eta bakoitzak bere hizkuntza du, baina nagusiak honako hauek dira: makua, yaua eta makonde; dena den, portugesez ulertzen dute denek elkar. Era berean, erlijio musulmana, kristaua eta animista ere aurki daitezke.

NEKAZARITZAKO JARDUERA

Mozambikeko iparraldean nekazaritzako sistema ohikoena antzina-antzinako teknika batean oinarritzen zen: **“moztu eta erre”**, hau da, basoko zati batean zuhaitzak moztu eta asko hazten ez den landaredia erretzen zuten; hartara, gai organikoetan eta mineraletan aberatsa zen lur hori laborantzarako baliatzen zuten. Gero, hainbat urteren buruan, lursail hori landatu gabe (lugorri) uzten zuten 40 bat urtez, eta erabili gabeko beste lursail bat hartzen zuten. Metodo horrek produkzioan errendimendu txikia izateaz gain, lur asko izatea eskatzen du eta **ekologikoki ez da jasangarria**.



“Moztu eta erre” sistemak lurra higatzen du

Populazioa hazten ari denez, sistema hori jada ez da bideragarria eta lugorrialdia murriztu behar izaten dute; beraz, emankortasuna erabat berreskuratu gabeko lurak erabiltzen dituztenez, **nekazaritzaren produktibitatea are txikiagoa da**. Horregatik, nekazaritzako produkzio sisteman aldaketak egin behar dira, lursail bat modu iraunkorrean landu ahal izateko lugorrialdi luzeak behar izan gabe.

Gainera, kontuan izan behar da 2015. urtean, lehen aipatu ditugun barruti horietan, **laborantzako lur gehien-gehienak lehorrekoak zirela**; hortaz, urte osoan zenbat euri egiten zuen eta nola banatzen zen araberakoa izaten zen produkzioa. Urteko batezbesteko plubiometria 1.000-1.200 mm zen, eta abendutik apirilera bitarte metatzen zen. Beraz, herritarrek hilabete horietan lortzen zuten uztarekin biziraun behar zuten urte osoan, edo produktuak salduta irabazten zuten diruarekin. Urteko batezbesteko tenperaturak 22-25°C dira, eta urria eta azaroa dira hilabete beroenak.

GAITASUN TEKNIKOAK ETA ANTOLAKUNTZAKOAK

Ur gutxi izateaz gain eta emankortasuna galtzeaz gain, 2015. urtean Mundukideren lan eremuan nekazaritzaren produktibitatea mugatzen ari zen beste faktore bat lanabesak ziren; izan ere, oinarri-oinarrizko eskuzko lanabesak erabiltzen baitzituzten. Animalien laguntzarik gabe eta ongariak erabili gabe, soroetako lan jardunak are gogorragoak ziren. Familia gutxi alokatu zezaketen makinaren bat uzta biltzeko edo lurra goldatzeko.

Nekazaritzako jardunbideak belaunaldi batetik bestera transmititzen eta irakasten ziren, baina **ez zuten prestakuntza berezirik jakintza tekniko aurreratuagoak lortzeko** lurzuaren emankortasunari buruz, laboreak dibertsifikatzeari buruz, haziak erabiltzeari buruz edo beste teknika batzuei buruz.

Nekazaritzako produkzioaren maila txikia izaki, **iraupeneko nekazaritza** zela esan daiteke, familiaren kontsumora bideratzen zena ia osorik. Hainbat familiak soberakin apurren bat lortzen bazuten herrixkan bertan edo inguruko herrixketan saltzen zuten. Produkzio txikia zutenez, produktuak barrutiko hiriburuetan saltzeko aukera ez zitzairen burutik pasa ere egiten, nahiz eta han prezio hobeaz lortu ahal izango luketen. Produkzioa ez zen nahikoa nekazariak bizitzeko behar adina baliabide lortzeko.



Tokiko merkatuan produktuak saltzen

Familien urteko guztizko errenta 175 euro zen, herrialdeko gutxieneko soldataren % 30, alegia.

Hainbat nekazari familia batu egin ziren eta elkarteak osatu zituzten laboreak merkaturaino elkarrekin garraiatzeko edo ur bildu txikiak eraikitzeko, ureztatze lanetan erabiltzearren. Baina, oro har, lurra bakoitzak bere aldetik lantzen zuen, eta lortutako uzta eta uzta horren etekin ekonomikoa familia bakoitzari zegokion. Praktikan, **produktoreen elkarte gehienak ez ziren oso operatiboak.**

ELIKADURA

Nekazaritzako produkzio eskasak familiaren errentan eragina izateaz gain, **elikaduran gabezia garrantzitsuak** ere sortzen zituen, batik bat, proteinei eta oligoelementuei zegokienez. Nekazarien familia batek 1-2 hektareako lur eremua lantzen zuen, eta 1.200 kg inguru zereal (batik bat, artoa eta arroz pixka bat) lor zezakeen, baina leguminosen 100 kilogramo baino gutxiago eta beste labore batzuen kopuru txikiak,



Elikadura funtsezkoa da garapen fisiko eta mentala egokia izan dadin

hala nola kotoiarena. Kopuru horiekin, zerealei dagozkien elikadura premiak bete zitzaketen baina ez, ordea, lekaleei, frutari, barazkiei eta haragiari dagozkienak.

Elikadurako gabezia horien ondorioz, anemia, marasmoa, hazkundearen eta garapen mentalaren atzerapena, errakismoa eta abar izan zitzaketen. Familiaren erosteko ahalmena txikia izaki, zaila zen dieta osatzeko oinarritzko beste elikagaiak erostea: olioak, arrautzak, azukrea, gatzak, haragia eta abar.

EMAKUMEEN EGOERA

Mozambikeko legeak aurreratuak direla esan daiteke, emakumeen aurkako diskriminazioari kontra egiteari dagokionez; izan ere, berdintasunaren aldeko legeak dituzte lurraren jabetzarekin lotuta, laneko baldintzetan, amatasuneko baja onartuta dago, ezkontzeko gutxieneko adina finkatuta dute eta abar. Dena den, hala eta guztiz ere, eguneroko errealitatean **emakumeak, oro har, gizonen mendeko izaten dira.**

Emakumeek bizitza pribatuan eta publikoan pairatzen duten desberdintasuneko eta zapalkuntzako egoeraren azpian kultura patriarkal sendoa dago. Produktzio jardueran, lanak gizonen eta emakumeen artean

banatzen dira, baina senarrak hartzen ditu erabakiak nekazaritzako soberakinei eta familiako diru-sarrerei dagokienez. Horren ondorioz, emakumeak gizonen mendeko izaten dira, ekonomikoki. Gizonak erabakitzen dute, azkenean, etxean sartzen den diru apurra inbertitu egingo ote duten (arropa, osasuna, elikadura, heziketa eta abar) edo euren aisialdirako edo ongi pasatzeko erabiliko duten. Emakumeek, soroetan lan egiteaz gain, etxeko lan guztiak eta seme-alabak zaintzen dituzte eta horrek **egunerokotasunean zama ikaragarria ematen die, gizonena baino askoz ere handiagoa.**

Esfera publikoan, emakumeak bilera komunitarioetara gonbidatzen dituzte, baldin eta etxean erantzukizunik bete behar ez badute. Oso modu diskretuan parte hartzen dute emakumeek eta, askotan, entzun baino ez dute egiten, baztertu egingo dituzten beldur direlako, euren buruarengan konfiantzarik eta segurtasunik ez dutelako eta heziketa maila txikia dutelako.

Egoera hori izanik, Niassa eta Cabo Delgado probintzietako nekazarien gaitasunak areagotzeko lan egin du **Mundukide** elkarteak, **diru-sarrerak modu orekatu eta**

jasangarrian handitzeko, eta, hartara, landa inguruneke eta hiriko herritarren ongizate mailaren artean dauden alde handiak murizten laguntzeko.

Etxeko lanak eta seme-alabak zaintzea lan zama gehigarria izaten da Mozambikeko emakume nekazariarentzat, soroetan egindako lanaz gain

“Pobreziaren aurkako borrokan ingurumenaren, uraren eta saneamenduaren kudeaketa esperientzien bitartez Gipuzkoako gizartea eraldatzeko” (GFA 2018 ERAL 012/01) proiektuaren hezkuntza materiala. ICLI GGKEk eta Zabalketa Elkartek koordinatutako proiektua, Gipuzkoako Foru Aldundiak kofinantzatuta *“Pobreziaren Aurkako Ingurumen Iraunkortasunaren Nazioarteko Sarearen”* elkarlanaren esparruan.

Egileak: Mundukide eta Asociación Zabalketa

Argazkiak: Mundukide

Diseinua eta maketazioa: ad hoc Komunikazioa eta Marketina
D.L. SS-691-2019

Mundukide, ICLI eta Zabalketaren webguneetan eskuragarri gazteleraz eta euskaraz:

www.mundukide.org www.icli.info
www.zabalketa.org

